

# Nekazariak gutxitzen, lursailak handitzen

Nekazariak gero eta gutxiago dira, eta gero eta zaharragoak. Euskal nekazaritza azkenetan dago. Hori bai, ustiategi kopurua behera egiten ari da eta nekazaritzako azalera erabilia gero eta handiagoa da.

DANIEL UDALAITZ

**EGUNETIK EGUNERA** nabarmenagoa da euskal nekazaritza galzorian dagoela. Zazpi euskal lurraldeak kontuan hartuz, lurralde batetik bestera egoera desberdina bada ere, gero eta ustiategi gutxiago eta handiagoak gelditzen dira. Gainera, egunetik egunera zaharragoak dira sektore honetan lanean diharduten herritarrak. Ustiategi jabeen erdiak baino gehiagok (%57,2k) 55 urte edo gehiago ditu. Hala ondorioztatzen da Gaindegiak egindako nekazaritzako estatistika nazionaletatik (www.datutalaia.net).

## Biztanleriaren %3 nekazaria da

Euskal Herrian 2001ean 36.326 pertsona ari ziren nekazari lanetan, hau da, biztanleriaren %3. Ehuneko hori Europar Batasuneko batez bestekoa- ren azpitik dago, are gehiago, baxue- netakoa da. Urte hartan batez beste- koa %5,3koa zen –gaur egun Europar Batasuna osatzen duten 25 estatuak kontuan hartuta–. Konparazio batera- ko, 1975. urtean euskal nekazaritzaren sektoreko okupazioa %8,3 ingurukoa zen.

Pisu erlatibo handiagoa dute lehen sektorean diharduten Nafarroa Behe- reko (%26,3) eta Zuberoako (%21,5) herritarrek gainontzeko euskal lurral- deetako nekazariak baino. Biztanleria

ARGAZKI PRESS / I. O.



okupatuari dagokionez, kostaldeko hiru lurraldeetan dauka nekazaritzak pisurik txikiena (Bizkaian biztanleria okupatuaren %1,7k dihardu nekazari- tzan, Gipuzkoan %1,8k eta Lapurdin

Nekazaritzatik bizi den biztanleria okupatuaren gehiengoa Nafarroan bizi da, hain zuzen ere sektore horre- tan diharduten pertsonen %36,2. Gai- nontzeko lurraldeak atzetik ditu, hurrenkera honetan: Bizkaia (%20,6), Gipuzkoa (%14,8), Araba (%10,9), Nafarroa Beherea (%8,4), Lapurdi (%5,5) eta Zuberoa (%3,6).

Nekazaritzatik bizi den biztanleria okupatuaren gehiengoa Nafarroan bizi da, sektorean diharduten pertsonen %36,2

## Ustiategi gutxiago daude orain

Euskal Herrian gero eta ustiategi gutxiago daude eta gelditzen direnak egunetik egunera handiagoak dira. Nekazaritzako 71.699 ustiategi geni- tuen 1999an, 1982an baino %22,6 gutxiago. Urte berean, Nekazaritzako Azalera Erabilia (NAE) 1.010.876 hektareakoa (ha) izan zen, 1982an baino %19,2 handiagoa. Gaur egun 14,1 ha-koa da ustiategien batez bes- teko tamaina, baina 1982an 9,2 ha- koa zenez, %54 hazi da nekazaritzako azaleraren batez bestekoa.

%2,4k). Tarteko mailan daude Araba eta Nafarroa; aipatutako hiru lurral- deena baino proportzio handiagoa dute, baina ez dira iristen Zuberoaren eta Nafarroa Beherearen mailetara. Izan ere, Araban biztanleria okupa- tuaren %3,1k egiten du lan lehen sek- torea eta %5,4k Nafarroan.

## Jabe gehienek 55 urte baino gehiago dituzte

Euskal Herrian dauden nekazaritzako ustiatuegien jabeen erdiak (%57,2k) 55 urte edo gehiago dauzka. Gaindegiak egindako estatistikek erakusten dutenez, %13,35 besterik ez dira gazteak, 40 urtetik beherakoak, alegia. Proportzioan, Nafarroa Behereko eta Zuberoako jabeak gazteagoak dira eta, Bizkaia eta Gipuzkoakoak, zaharragoak.

Nabarmena da lurraldeen arteko aldea. Proportzioan gazte gehiago daude Nafarroa Behereko eta Zuberoako ustiatuegien buruan, izan ere jabeen %31,5 eta %32 baitira 40 urtetik beherakoak.

ARGAZKI PRESS / L.J.



Gainera, lurralde horietan, ustiatuegiak jabeen %80k 55 urte baino gutxiago dauzka. Bizkaian eta Gipuzkoan daude ustiatuegi jabe zaharrenak. Bizkaian, %66,3k dauzka 55 urte edo gehiago eta, Gipuzkoan, %60,1ek. Hurrenez hurren jabeen %7,9 eta %10,7 besterik ez dira 40 urtetik beherakoak.

Gainontzeko lurraldeak erdi parean daude, baina bakoitzak bere ezaugarriekin. Esate baterako, Lapurdiko jabeen erdiak 55 urte baino gutxiago ditu. Alabaina, Arabako eta Nafarroako ustiatuegien jabeetatik erdia baino gehiago da 54 urtetik gorakoa.

Euskal Herriko nekazaritzaren joera Europar Batasunekoaren berbera da. Europar Batasuneko estatu guztietan, ustiatuegien kopuruak behera egin du 1988 eta 1999 urteen artean. Eta, Europar Batasunean bezala, euskal lurraldeetan ere gora egin du ustiatuegi bakoitzean erabiltzen den nekazaritzako azalera erabiliaren ehunekoak.

Gero eta ustiatuegi gutxiago daude, baina gero eta azalera handiagoa erabiltzen da; hortaz, ustiatuegi bakoitzak batez beste gero eta azalera handiagoa erabiltzen du. Euskal Herriko lurralde guztietan gertatzen ari da hori, baina ez maila berean. Esate baterako, Nafarroa mutur batean dago eta Gipuzkoa bestean.

1982 eta 1999 urteen artean, Nafarroan Euskal Herriko beste edozein lurraldetan baino gehiago murriztu ziren nekazaritzako ustiatue-

giak (bostetik bi desagertu dira 17 urtean, %40,3 alegia), eta aldi berean, ustiatuegi bakoitzeko NAEa beste lurraldeetan baino gehiago hazi zen, kasu batzuetan ia ehuneko 100. Gipuzkoaren kasuan, 1982 eta 1999 artean ustiatuegi kopurua zertxobait hazi zen (%5,3), baina lurralde horretantxe hazi zen gutxien ustiatuegiak NAEa (%28,2). Gainontzeko lurraldeetan bi muturren arteko gorabeherak izan dira. Nafarroako mailetara iristen ez badira ere, joera berari jarraitzen diote hurrenez hurren Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak, %30aren inguruko ustiatuegi murrizketarekin eta ustiatuegi bakoitzeko %55 eta %72 arteko NAEaren igotzarekin. Horien atzetik dago Araba,

%9 ustiatuegi gutxiagorekin eta %40,7 NAE gehiagorekin.

Bizkaia da Gipuzkoako datuetara gehien hurbiltzen dena, ustiatuegi kopuruaren %5,15eko jaitsierarekin eta NAEaren batez besteko %40,8ko gehikuntzarekin.

### Ustiatuegi indibidualak

Ustiatuegien eredu nagusia ustiatuegi indibidualena den arren, halakoak gutxitu egin dira 1982 eta 1999 urteen artean. Ustiatuegien %93,9 indibidualak dira (67.340), hau da, horien titularrak pertsona fisiko bat da. Nahiz eta eredu hau oso hedatua egon, murriztu egin da 1982 eta 1999 artean (%96,8 eta %93,9). Lurralde gehienetan, ustiatuegi indibidualen portzentajea %90etik gorakoa da. Araba eta Nafarroa Beherea dira salbuespenak, hurrenez hurren %82,3ko eta %88,1eko portzentajearekin. ■

gure!  
artean!  
euskaraz

